

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ordezkariak fakultatea bisitatu dute

2015/04/29

Atzo, hilak 28, Eusko Jaurlaritzako ordezkarien bisita jaso genuen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Taldearen buruan zegoen Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua, berarekin batera etorri ziren Itziar Alkorta unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordea, Olatz Garamendi Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea eta Jose Manuel Bujanda Sailburuaren Kabineteko Zuzendaria. Bisitaren helburua zen harremanak sendotzea Eusko Jaurlaritza eta MONDRAGON UNIBERTSITATEaren artean, bertatik bertara ezagutzea unibertsitateak esku artan dituen egitasmoak eta, bide batez, campusak berriro ikustea.

Ordezkaritza politikoekin batera, Aretxabaletako campusera egon ziren MONDRAGON UNIBERTSITATEko ordezkari nagusiak, hala nola Bixente Atxa MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorea, Jon Altuna Errektoreorde Adakemikoa, Carlos Garcia Goi Eskolako Zuzendaria, Lander Beloki Enpresagintza fakultateko dekanoa eta Idoia Peñakoba unibertsitateko Idazkari Nagusia. Gure fakultateko ordezkariak izan ziren Begoña Pedrosa Dekanoa, Andres Gostin Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko koordinatzailea eta Aitor Zuberogotia irakaslea.

Aretxabaletako campusa etorri aurretik taldeak bisitatu zituen Oñatiko eta Arrasateko campusak.



Eusko Jaurlaritzako eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko ordezkariak Aretxabaletako campusean.